



OROZKOKO UDALA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

(1998/12/31ko 252 zb. B.B.O.ean argitaratua)

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinaren zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau Udalerriaren eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA.

3. artikulua.

Udalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzen edo jarduera bat burutzeak eratzendu zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularran egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJETU PASIBOA.

4. artikulua.

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjeto pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo eragina jasotzen duenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispén zerbitzuengatik, saiblemenduengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.



OROZKOKO UDALA

5 artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin duenak.
- b) Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6 artikulua.

Ordenantza honetatik erazortzen diren zerga zorretan, subjeto pasiborekin batera tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK.

7 artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA.

8 artikulua.

Oinarri ezargarrria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA.

9 artikulua.

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGAGAIA.

10 artikulua.

Zerbitzua edo jarduera egiten denean.

VII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.

11. artikulua.

Udal kontzeptu bakoitzean likidazioa egingo du, eta likidaturiko de Eranskinak exakzio bakotzerako ezertatzen dituen arau partikularrei jarraituz.



OROZKOKO UDALA

IX. TASEN KUDEAKETA.

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzean diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkion zigorrak ezartzekoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 1999ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.